



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA UGALDETXXO

ZENBAGARREN SAIOA: 3

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-02	19.38	21.35

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Agurtzane Lekuona, Ioritz Aizpuru			
Herritarrak:	Euskaraz: 13		Elebitan:	
	Emakumezkoak: 6		Gizonezkoak: 7	
	<30 urte: 2	31-50 urte: 5	51-65 urte: 5	>66 urte: 1

AKTA: BALANTZEA / AURREKONTUA / AUZOA

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Ez dago galderarik
Aurrekontuak 2019	Ez dago galderarik
Auzoa	Matteoko bidegurutzea arriskutsua da, kotxeak abiadura handian pasatzen dira. Errotonda egin al daitekeen galdetzen da. Erantzun da ezinezkoa dela. Zuhaitzak bisibilitatea kentzen dute (errekan daudenak Altzibar aldera ezkerretara). Abiadura murrizteko banda batzuk jarri litezke errepidean. Irungo sarreran dagoen estilora, radar faltsua. Hala ere, errepide hau Aldundiarena dela gogorarazten da. Matteoko zubian stopa egiteko zerbait jartzea aipatu da, ez baita errespetatzen. Ondorioz, beste zebrabidea ere ez da errespetatzen. Intxixuko semaforoa beste modu batera programatu. Laranja jarri? Atamitxeko obra Amenabarren propagandarekin arriskutsua dago Isastitik ateratzeko. Ez dago bisibilitaterik. Kartel batzuk kendu behar dira.

Auzo lokalaz hitz egin da: 160 m2 batek dio txikiegia dela. Sukaldea egin daitekeen galdetu du batek. Sukaldea nahi bada soziedade moduan izan beharko lukeela erantzun da, bere ondorio guztiekin. Festetan nabaritu dute azpiegitura falta: ur hotzarekin, Girizian jana prestatzea... Sukaldearen kostu ekonomikoa etab hartzeko prest azaldu dira auzotarrak. Auzoko lokalak irekiak izaten dira, sukaldearekin elkarte gastronomikoa izango litzateke, eta erabiltzaileak bazkide izan beharko dute. Berriz ere beste auzoetako ereduak ez direla esan zaie, arriskutsua izan daitekeelako gestioa.

Beraz, Ugaldetxo Kultur Taldeak eskaera sartu beharko luke adieraziz lokala behar duela aktibitate ekonomia aurrera emateko: auzoko festak, San Juan sua...

Bestalde, festetan karpa jartzeagatik 500 euro gehiago jasotzen dituzte baina 2000 euroko kostua du. Beraz 1500 euro gutxiago dituzte beste auzoek baino.

Ondorioz, auzoan bildu eta hala nahi badute, udaletxean eskaera egiteko esan zaie. Lokalaren ardura guztia auzo elkarteak hartuko luke.

Aipatu da orain arte Atamitxeko eraikina eduki dutela, baina hori pribatua zela. Udalak horrelakorik ez duela egingo argitu da.

Kalexako jardineretatatik ura ateratzen da. Irristalaria geratzen da. Urik ez ateratzeko soluzioa jarri. Bestela kendu.

Musika taldeak: Mendibil / eskolak. Erabilera nola arautua dagoen galdetu dute. Agurtzanek azaldu du hitzarmena berriku behar dela Ugaldetxoko eskoletan. PROPOSAMENA AUZOTAR BATEK: oiartzuarrek lehentasuna izatea. Bost urteko epe muga jartzea. Ez betikotzeko beraientzat. Eta profesionaltzen badira beraiek bilatu dezatela.



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



	Txaparreko errekan barrenean ibiltzeagatik txakurrei dermatitis azaldu zaie. Egun batzuetara azaltzen zaie. Beti aste bukaeretan zerbait isurtzen den susmoa dago. Tarteka izaten da. Ura zikina azaltzen omen da, aparrarekin. Udaltzainari deitu diezaiotela.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,30
bilera ongi gidatu da	8,30
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,80
Auzotar kopurua	4,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,33
Saioa probetxugarria izan al da?	7,33
Egunaren egokitasuna	7,33
Orduaren egokitasuna	8,22
Lekuaren egokitasuna	6,00
Batezbestekoa	7,18